ANOETAKO UDALA

KIROL IKASTAROEN ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZERAKO TAILERREN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA. BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CURSOS DEPORTIVOS Y TALLERES DE EMPODERAMIENTO PARA LAS MUJERES. PLIEGO DE LAS CLÁUSULAS TÉCNICAS

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen objektua edo xedea Anoetako Udaleko Kultura Sailak antolatu ohi dituen kirol ikastaro eta emakumeentzako ahalduntze tailerren zerbitzua ematea da.

Kontratuaren iraunaldia 2022-2023 ikasturtekoa izango da, 2022ko urriaren 1etik 1etik 2023ko ekainaren 30a arte.
Kontratuak hiru luzapen eduki ahalko ditu; luzapen hauek 2023-2024, 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteekin bat etorriko dira, urriaren 1etik ekainaren 30era, biak barne.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de este contrato es la prestación del servicio de cursos deportivos y talleres de empoderamiento para las mujeres que habitualmente organiza el departamento de Cultura del Ayuntamiento de Anoeta.

La duración del contrato será del 1 de octubre del 2022 al 30 de junio del 2023.
El contrato podrá tener tres prórrogas que se corresponderán con los cursos escolares 2023-2024, 2024-2025 y 2025-2026, del 1 de octubre al 30 de junio, ambos inclusive.

***KIROL IKASTAROAK* (A LOTEA):**

Urriaren 1etik ekainaren 30era izango dira, astero, garai hauetan izan ezik: Inauteriak, Pazko Astea, herriko festak (Korpus) eta Eguberriak.

HELDUENTZAT:
Yoga: astelehenetan 17:00-18:30, astearteetan 09:30-11:00, asteazkenetan 18:30-20:00, ostegunetan 10:30-12:00 eta 17:00-18:30.
Cycling: astearte eta ostegunetan 10:15-11:15
Hirugarren adinekoentzako gimnasia: astelehen eta asteazkenetan 10:15-11:15
Zumba: astelehen eta asteazkenetan 19:30-20:30
Cross training: astearte eta ostegunetan 18:15-19:05 eta 20:00-20:50
Tonifikazioa: astelehen eta asteazkenetan 18:15-19:15 eta astearte eta ostegunetan 09:10-10:10.

HAURRENTZAT:
Gimnasia erritmikoa: astelehenetan 18:30-19:30
Zumba: asteazkenetan 19:30-20:30

CURSOS DEPORTIVOS (LOTE A):

Se realizarán semanalmente del 1 de octubre al 30 de junio, excepto en Carnavales, Semana de Pascua, fiestas patronales (Corpus) y Navidades.

PARA PERSONAS ADULTAS:
Yoga: lunes de 17:00 a 18:30, martes de 09:30 a 11:00, miércoles de 18:30 a 20:00, jueves de 10:30 a 12:00 y de 17:00 a 18:30.
Cycling: martes y jueves de 10:15 a 11:15.
Gimnasia Tercera Edad: lunes y miércoles de 10:15 a 11:15.
Zumba: lunes y miércoles de 19:30 a 20:30.
Cross training: martes y jueves de 18:15 a 19:15 y de 20:00 a 20:50.
Crosstraining: martes y jueves de 18:15 a 19:05 y de 20:00 a 20:50.
Tonificación: lunes y miércoles de 18:15 a 19:15 y martes y jueves de 09:10 a 10:10

PARA NIÑAS Y NIÑOS:
Gimnasia rítmica: lunes de 18:30 a 19:30
Zumba: miércoles 19:30-20:30

ANOETAKO UDALA

Ordutegi hauek estimatiboak dira. Talde gehiago edo gutxiago sor litezke, edo bestelako ikastaro batzuk eskaini, betiere kontuan hartuz urtean gehienez 917 ordu izango direla.

Estos horarios son estimativos. Se pueden formar más o menos grupos, y se podrán ofrecer otras propuestas de cursos, siempre teniendo en cuenta un máximo anual de 917 horas.

Anoetako Udalak egutegi-ordutegi hau egokitu lezake egoera hauetan:
-Interes orokorrak hala eskatzen badu.
-Programazioaren premien edo aldaketen ondorioz.
-Ospakizunen edo aparteko ekintzen premien ondorioz.
-Anoetako Udalaren irizpideen arabera behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoi.

El Ayuntamiento de Anoeta podrá modificar este calendario y horario en los siguientes supuestos:
-Si el interés general así lo demanda.
-Por necesidades y/o variación de la programación.
-Por necesidades derivadas de celebraciones u otros actos de carácter extraordinario.
-Por cualquier otra causa debidamente justificada, a criterio del Ayuntamiento de Anoeta.

Aipatu kirol ikastaro guztiak kiroldegian egingo dira, yoga izan ezik. Hau gela balioanitzean emango da. Emakumeentzako ahalduntze ikastaroak gela balioanitzean egingo dira. Dena dela, Anoetako Udalak zerbitzu hauek beste edozein udal instalazioetan emateko ere eskatu lezake.

Todos los cursos deportivos mencionados se realizarán en el polideportivo, exceptuando Yoga, que se dará en la sala polivalente. Los talleres de empoderamiento para las mujeres se realizarán en la sala polivalente. De todas formas, el Ayuntamiento de Anoeta podrá solicitar la prestación de los servicios mencionados en cualquier otra instalación municipal.

 ***AHALDUNTZE IKASTAROAK EMAKUMEENTZAT (B LOTEA)*:** emozioen kudeaketa, etxeko brikolajea, xilografia, batukada feminista edo bestelakoak.

 TALLERES DE EMPODERAMIENTO PARA LAS MUJERES (LOTE B): emociones, bricolaje doméstico, xilografía, batukada feminista u otros.

Kontratazio honen helburua da emakumeentzako ahalduntze ikastaroak antolatzea ikasturtean zehar, urritik ekainera, Parekidetasun arloko urteko plangintzaren baitan.

El objeto de esta contratación es la organización de talleres de empoderamiento de octubre a junio, dentro de la programación anual del Área de Igualdad.

Tailerren helburuak dira emakumeen parte-hartzea eta talde-lana bultzatzea, sormena lantzea eta emakumeen jabekuntza prozesuan laguntzea.

Los objetivos de los talleres son estimular el trabajo en equipo con otras mujeres, cultivar la creatividad y acompañar a las mujeres en su proceso de empoderamiento.

Ikastaroen arduradunek ikuspegi feminista landuko dute ikastaroan zehar eta emakumeen jabekuntzarako tresnak zeharlerrotasunez landuko dituzte.

Las responsables de los talleres abordarán el enfoque feminista a lo largo del curso y trabajarán de forma transversal las herramientas para el empoderamiento de las mujeres.

Ahalduntze feministako prozesuak landuko dira, hau da, emakumeek beren gaitasunak, estrategiak eta protagonismoa bereganatzen edo indartzen dituzten prozesuak, bai maila indibidualean, bai kolektiboan.

Se trabajarán procesos de empoderamiento feminista, entendido como aquel proceso por el cual las mujeres adquieren o refuerzan sus capacidades, estrategias y protagonismo, tanto en el plano individual como colectivo.

ANOETAKO UDALA

Hortik aurrera, talde-dinamikak eta banakako ariketak definituko dira, autonomia eta erabakiak hartzea lantzeari begira.

A partir de aquí, definirán dinámicas de grupo y ejercicios individuales mediante los que se trabajará la autonomía y la toma de decisiones.

Urtean gutxienez 4 tailer emango dira, eta saio kopurua aldakorra izango da ikastaro motaren arabera, baina guztira urtean gehienez 70 ordu izango dira.

El número de talleres será de 4 mínimo al año y el número de sesiones de cada uno variará según las características de cada taller, pero como máximo serán 70 horas al año.

Esleipendunak ikastaro eskaintza proposamen bat aurkeztu beharko dio Udalari, eta Parekidetasun arloak proposamena aztertu eta erabakiko du zeintzuk diren gehien interesatzen zaizkionak, edo beste batzuk proposatu ahalko dizkio esleipendunari.

La empresa adjudicataria presentará una propuesta al Ayuntamiento, y el Área de Igualdad decidirá los que más le interesan, o le podrá hacer otras propuestas a la empresa adjudicataria.

2.- ZERBITZUAREN FUNTSA ETA HELBURUAK

2.- FUNDAMENTO Y OBJETIVOS DEL SERVICIO

Anoetako Udalak herritartasun aktiboa eta parte-hartzailea sustatzea du helburu, Udalaren eskumena den kultur sustapenaren eta jarduera kulturalen alorrean hain zuzen ere.

El Ayuntamiento de Anoeta tiene como objetivo promover una ciudadanía activa y participativa, en materia de promoción cultural y actividades culturales de competencia municipal.

Kontratuaren helburu zuzena da kirol ikastaroak eta emakumeentzako ahalduntze tailerrak eskaintzea.

El objeto directo del contrato es la prestación de cursos deportivos y talleres de empoderamiento para las mujeres.

Ikastaro eta tailerren bitartez, Anoetako herritarrei beren aisialdian alternatiba ludiko-hezitzaile bat eskaintzeaz gain, Anoetako bizitza sozialean parte har dezaten aukera eskaintzea beharrezkotzat jotzen da.

A través de cursos y talleres, se desea ofrecer a las vecinas y vecinos de Anoeta, además de una alternativa lúdica en su tiempo libre, la posibilidad de participar en la vida social de Anoeta.

Indibidualismotik eta norbanakoaren beharrez haratago, kolektiboaren eta talde-kohesioaren funtsa eta izaera ahalbidetzen eta indartzen duten espazio soziokultural euskaldunak eraikitzea nahi da.

Más allá del individualismo y de las necesidades individuales, se pretende construir espacios socioculturales euskaldunes que permitan y refuercen la cohesión colectiva.

Era berean, ezagutza arlo ezberdinei dagokien trebakuntza eskaintzeaz gain, balioetan oinarritutako hezkuntza, norberaren ahalduntzea, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, dibertsitatearekiko errespetua eta tolerantzia sustatu nahi da. Anoetako herritarrei zuzendutako aisialdi aktibo, kritiko eta gogoetatsua garatzeko aukera sustatu nahi da.

Asimismo, además de ofrecer formación correspondiente a las diferentes áreas de conocimiento, se pretende fomentar la educación en valores, el empoderamiento personal, la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, el respeto a la diversidad y la tolerancia. Con todo se pretende fomentar el desarrollo de un ocio activo, crítico y reflexivo dirigido a la población de Anoeta.

ANOETAKO UDALA

3.- ZEHARKAKO LERROAK

Parekidetasuna:
Indarrean dagoen araudi guztia errespetatuko da, eta bereziki Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, eta 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, aldatzen duena.

Ikastaro eta tailerretan gizon eta emakumeen parekidetasuna bermatzeko bitartekoak jarriko dira: hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatuko da, eta garatuko diren edukietan hala nola erabiliko diren irudietan emakume eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatuko da.

Txosten eta memorietan sexuagatik banandutako datuak jasoko dira.

Ez da sortuko sexuagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerari, eta parekidetasunean eragin positiboa izatea bermatuko da une oro.

Inklusioa eta integrazioa:
Parte-hartzaileen artean dagoen aniztasuna (adina, jatorria, sinesmena, gaitasuna, eta abar) kontuan hartuko da eta dibertsitatea aintzakotzat edukiko da. Ikastaroetan arreta eskainiko zaie parte-hartzaile bakoitzaren berezko beharrei, guztientzako eta bakoitzarentzako esanguratsua izango den esku-hartze hezitzailea garatuz. Arreta berezia eskainiko zaie premia berezia dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenak, etorkinak etab.)

Euskara:
Ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dira. Salbuespenik egonez gero, Kultura departamentuak jakinaraziko lioke esleipendunari.

Zerbitzua euskaraz izateko beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: langile euskaldunak, euskarazko materiala, etab.

Komunikazioa udalarekin eta partaideekin euskaraz izango da, eta ikastaroen publizitate

3.- LÍNEAS TRANSVERSALES

Igualdad:
Se respetará la legislación actual vigente al respecto, especialmente la Ley 4/2005, del 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y la Ley 3/2012, del 16 de febrero, que la modifica.

En los cursos y talleres se pondrán los medios para garantizar la igualdad de mujeres y hombres: se hará un uso no sexista del lenguaje, y se garantizará una presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en los contenidos que se desarrollen y en las imágenes que se utilicen.

En los informes y memorias constarán los datos clasificados por sexo.

No se admitirá ninguna actividad que suponga discriminación sexual directa o indirecta, y se garantizará en todo momento influir de manera positiva en la paridad.

Inclusión e integración:
se tendrá en cuenta la diversidad existente entre las personas participantes (edad, origen, creencias, capacidad, etc.) Los cursos atenderán las necesidades propias de cada participante, desarrollando una intervención educativa significativa para cada cual. Se prestará especial atención a las personas con necesidades especiales (dificultades sociales, inmigrantes, etc.).

Euskera:
Los cursos serán en euskera. Si hubiera alguna excepción, el departamento de Cultura se lo haría saber a la empresa adjudicadora.

Para desarrollar el servicio en euskera se garantizarán todas las condiciones necesarias: personal euskaldun, material en euskera, etc.

La comunicación con el Ayuntamiento y con las personas participantes será en euskera, y los carteles y hojas informativas para publicitar los cursos se harán en

kartelak eta eskuorriak euskaraz izango dira (ele biz ere bai, udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian jartzeko, besteak beste).

Une oro euskararen erabilera sustatuko da, bai parte-hartzaile eta irakasleen artean eta baita parte-hartzaileen artean ere.

euskera, (también en bilingüe, para poner en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y la página web, entre otros).

En todo momento se fomentará el uso del euskera, tanto entre las personas participantes y profesorado como entre las propias participantes.

Ingurumena:
Ingurumen irizpideak hartuko dira kontuan, ahal den heinean: aurrezte eta energia eraginkortasuna, hondakin frakzio ezberdinen sailkatze egokia (ahalik eta hondakin gutxien sortzen saiatuz), tokiko bioaniztasunari kalterik ez sortzea (material ekologiko eta jasangarriak), mugikortasun iraunkorra sustatzea, jendaurreko ekitaldirik antolatuz gero tokiko elikagaiak sustatzea etab.

Medio ambiente:
Se tendrán en cuenta criterios medioambientales, en la medida que sea posible: ahorro de energía y eficiencia energética, reducción de residuos y separación de las diferentes fracciones, no perjudicar la biodiversidad local y promover el uso de materiales ecológicos realizados con procesos sostenibles, fomentar la movilidad reducida, en caso de hacer alguna presentación pública consumir productos de producción local, etc.

4.- ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK.

4.- CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL SERVICIO.

1. Agiri honetan eta Baldintza Administratibo zehatzen Agirian ezarritako baldintza tekniko, ekonomiko eta administratiboen arabera beteko da kontratua. Halaber, esleipen honen xede den jarduera burutzeko Kultura Zerbitzuak emandako aginduak beteko dira.

1. El contrato se regirá por las condiciones técnicas, económicas y administrativas establecidas en el presente Pliego y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Asimismo, para la realización de la actividad objeto de esta adjudicación se observarán las instrucciones del Servicio de Cultura.

2. Adin-tarte eta kolektibo ezberdinei egokitutako ikastaro eta tailerren eskaintza egin nahi da, kontratuaren xedean zehaztuta dagoena. Horrez gain, erakargarriak izan daitezkeen bestelako ezagutzak eta diziplinak lantzen dituzten ikastaro eta tailerrak ere eskaini ahalko dira.

2. Se pretende realizar una oferta de cursos y talleres adaptados a las diferentes franjas de edad y colectivos. Esta oferta aparece reflejada en el Objeto del contrato. Además, se podrán ofertar cursos y talleres en los que se trabajen otros conocimientos y disciplinas que puedan resultar atractivos.

3. Esleipendunak 2022-23ko ikasturtearen proposamena aurkeztu beharko dio Kultura departamentuari irailaren 15erako. Proposamen honetan kontuan hartuko dira gutxienez kontratuaren xedean ezarritako ikastaroak eta ordutegiak. Eta Udala arduratuko da kartelak eta orri informatiboak egin eta zabaltzeaz.

3. La empresa adjudicataria presentará antes del 15 de septiembre su propuesta de cursos para el curso 2022-23. En esta propuesta se asegurarán como mínimo los cursos deportivos señalados en el objeto del contrato, con dichos horarios. Y el Ayuntamiento se encargará de realizar y difundir los carteles y hojas informativas.

Irailaren 15a baino lehen aurkeztuko du ere ahalduntze tailerren eskaintza, Kultura departamentuak aztertzeko, eta aukeratzeko. Kultur Departamentuak zerrenda horretatik kanpo beste tailerren bat proposatu ahalko dio esleipendunari.

También presentará antes del 15 de septiembre una oferta de talleres de empoderamiento, que luego contrastará con el Departamento de Cultura, para seleccionar los de su interés. El departamento de Cultura podrá proponer a la empresa algún otro taller que no conste en la propuesta presentada.

ANOETAKO UDALA

Hurrengo ikasturteei begira, esleipendunak maiatza hasieran aurkeztuko dio Kultura departamentuari bere proposamena, honek baloratu eta aldaketak egiteko aukera izateko.

En los próximos cursos, la empresa adjudicadora presentará a principios de mayo la programación de cursos y talleres a ofertar en el siguiente curso, a fin de que el Departamento de Cultura la valore y haga las revisiones o propuestas que considere oportunas.

Aipatu proposamenak ikastaroen helburuak, landuko diren edukiak, metodologia, beharrezkoak diren materialen zerrenda, eta abar, jasoko ditu.

Dicha programación recogerá los objetivos del curso, los contenidos que se van a trabajar, la metodología, la relación de materiales necesarios, etc.

Ekainaren erdialdean enpresak ikastaroen kartel eta orri informatiboak aurkeztuko dizkio Kultura departamentuari, Udalak irailean zabaltzeko herritarrei.

A mediados de junio la empresa adjudicataria presentará al Departamento de Cultura los carteles y hojas informativas correspondientes, que el Ayuntamiento se encargará de difundir en septiembre.

4. Zerbitzuaren abonatu eta erabiltzaileentzako jardueren programa Anoetako Udaleko Kultura Sailarekin batera landuko du esleipendunak, dagoen eskaria betetze aldera.

4. La empresa adjudicataria estudiará y gestionará junto con el Departamento de Cultura del Ayuntamiento el programa de actividades para las personas usuarias del servicio, en aras de la satisfacción de la demanda existente.

5. Ikastaro eta tailerrak goizez edota arratsaldez eskaini ahalko dira eta urritik ekainera bitartean gauzatuko dira Anoetako Udalak zehaztutako egutegian. Hasiera batean, kontratuaren xedean aipatu ordutegiak izango dira, baina aldaketak egon litezke.
Esleipenduna arduratuko da zerbitzua lan-egutegiaren eta ordutegiaren arabera emateaz, eta ez betetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartuko du.

5. Los cursos y talleres se podrán ofertar en horario de mañana y/o tarde y se desarrollarán de octubre a junio en el calendario que determine el Ayuntamiento de Anoeta. En principio los horarios serán los establecidos en el Objeto del Contrato, pero pueden estar sujetos a cambios.
La empresa adjudicataria será responsable del cumplimiento de la prestación del servicio conforme al calendario y horario laboral, asumiendo las responsabilidades que se deriven de su incumplimiento.

6. Ikastaro edota tailerrak aurrera eramateko gutxieneko eta gehieneko pertsona kupurua zehaztuko du Udaleko Kultura departamentuak, izen-emate zerrendak ikusita, eta egoki iruditzen zaizkion estimazioak kontuan hartuz.

6. El departamento de Cultura del Ayuntamiento establecerá un número mínimo y un número máximo de personas para la realización de los curso y talleres, según la demanda existente y las estimaciones que considere oportunas.

7. Esleipendunak eskolak emateko eta instalazioak erabiltzeko behar den diziplina mantenduko du, instalazioen arauak betearaziko ditu eta erabilitako materiala atera eta jaso egingo du.

7. La empresa adjudicataria mantendrá la disciplina debida a la hora de dar clases y usar las instalaciones, hará cumplir la normativa de las instalaciones, y se encargará de sacar y recoger el material utilizado.

Honen harira, udal instalazioetan dagoen materiala erabili ahalko du esleipendunak, erabilera egokia egiteaz arduratuz. Erabilera okerra egingo balitz, esleipendunaren kontura litzateke berritzea.

La empresa adjudicataria podrá utilizar el material existente en las instalaciones municipales, con la condición de que haga buen uso de éste. En caso contrario, la reposición correría por cuenta de la empresa adjudicataria..

8. Esleipenduna ikastaroen kartelak egiteaz arduratuko da, eta Udalak zabalduko du informazioa ohiko bideetatik (web orria, sare sozialak, udaletxeko iragarki-taula etab.). Karteletan, eskuorrietan eta zabalkunderako materialean udalaren logotipoa azalduko da.

8. La empresa adjudicataria se encargará de la realización de los carteles de los cursos, y el Ayuntamiento se encargará de su difusión a través de las vías habituales (página web, redes sociales, tablón de anuncios del Ayuntamiento, etc.). En todos los carteles, hojas informativas y demás material para la difusión del servicio, aparecerá el logotipo del Ayuntamiento.

9. Esleipendunak ikastaroetan izena emandako ikasleen jarraipena eta asistentzia kontrola egin beharko du. Eta abenduaren 5eko Lege Organikoa 3/2018 bete beharko du, datu pertsonalak babesteko legea, alegia.

9. La empresa adjudicataria deberá realizar el seguimiento y control asistencial de las personas inscritas en los cursos. Y deberá respetar en su integridad la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de protección de datos personales.

10. Esleipendunak gorabeheren eguneko erregistroa eramango du, eta udaleko Kultura Sailari jakinaraziko dio, zerbait gertatuz gero.

10. La empresa adjudicataria llevará un registro diario de incidencias, y dará cuenta de ello al departamento de Cultura del Ayuntamiento.

Esleipendunak jarduerari buruzko hiruhileko txostenak aurkeztu beharko dizkio udaleko Kultura departamentuari, honako hauek adierazita: erabiltzaileak, estatistika datuak (genero ikuspegia txertatuta), gorabeherak, erreklamazioak, kexak etab.

La empresa adjudicataria deberá presentar al departamento de Cultura del Ayuntamiento informes trimestrales sobre la actividad: datos estadísticos con enfoque de género,, personas usuarias, incidencias, reclamaciones, quejas, etc.

Ikasturtea amaitu ondoren, ikasturteko memoria aurkeztu beharko du esleipendunak. Bertan azalduko dira antolatutako ikastaroen datuak (kopuruak, generoa etab.) eta balorazio orokorra.
Esleipendunak erabiltzaileen gogobetetze-mailari buruzko inkestak ere aurkeztu beharko dizkio udalari.

Al finalizar el curso escolar, la empresa adjudicataria tendrá que presentar una memoria de los cursos realizados, aportando datos sobre número de participantes, género, etc. y una valoración general. Asimismo, presentará encuestas del grado de satisfacción de las personas usuarias con el servicio.

11. Esleipendunak bere gain hartzen du zerbitzua emateko beharrezko giza eta material errekurtsoak ematea. Irakasleek gutxieneko titulazioa izango dute, jarduera ezberdinak irakasteko. Irakasleak esleipendunak aukeratuko baditu ere, informazio moduan aipatzea orain arte aritu diren irakasleekin oso gustura egon direla erabiltzaileak.

11. La empresa adjudicataria asume la prestación de los recursos humanos y materiales necesarios para la prestación del servicio. El personal docente tendrá que tener una formación mínima para impartir los diferentes cursos. Si bien la empresa adjudicataria elegirá el profesorado, comentar a modo informativo que las personas usuarias del servicio han valorado muy positivamente a las profesoras y profesores que han desarrollado estos servicios hasta ahora.

Esleipenduna ahaleginduko da kontratua gauzatzeko epean eta baita luzapenetan ere) zerbitzua emateari atxikitzen zaizkion langileen egonkortasuna bermatzen.

La empresa adjudicataria procurará garantizar la estabilidad del personal que se adscriba a la prestación del servicio durante el plazo de ejecución del contrato y sus prórrogas.

Esleipendunak une oro mantendu beharko ditu ezarritako egutegi eta orduekin zerbitzua

La empresa adjudicataria deberá mantener en todo momento el personal que se adscriba a la prestación del servicio con el calendario y horarios establecidos, y, en

emateari atxikitzen zaizkion langileak, eta, ondorioz, berehala egin beharko ditu gaixotasun, istripu, baimen, lizentzia eta antzeko beste arrazoiengatik egin beharreko ordezkapenak.

consecuencia, realizará de forma inmediata las sustituciones necesarias por razón de enfermedad, accidente, permisos, licencias u otras análogas, debiendo acreditar el cumplimiento de los requisitos de formación y euskera exigidos en el presente pliego.

Ordezkapenak egiten direnean, enpresak abisua pasa beharko dio udaleko Kultura departamentuari hala nola harrera zerbitzuko enpresari.

En todo caso, la empresa adjudicataria avisará tanto al departamento de Cultura como a la empresa que gestiona la recepción, cuando haya alguna sustitución.

Bestalde, ordezkoak zerbitzuan eskatzen den formazioazioa eta euskarari buruzko baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

En caso de sustituciones, se acreditará en todo momento el cumplimiento de los requisitos de formación y euskera exigidos en el presente pliego

Kultura departamentuak eskubidea izango du kontratuari esleitutako langileen aldaketa eskatzeko, ez baldin badira egokiak, kexak daudelako edo lanbide-profila desegokia delako.

El departamento de Cultura se reserva el derecho a exigir la sustitución del personal asignado al contrato en caso de no idoneidad, por la existencia de quejas o inadecuación de su perfil profesional.

Esleipendunak zerbitzua emango duen pertsonalaren zerrenda eta beren kontratuen kopiak aurkeztuko dizkio Kultura departamentuari, ikastaroak edota tailerrak hasi baino hiru egun lehenago gutxienez.

La empresa adjudicataria presentará al Departamento de Cultura del Ayuntamiento un listado nominal del personal que cubrirá el servicio, junto con la copia de los contratos del profesorado, como mínimo tres días antes del inicio de los cursos y/o talleres.

Era berean, zerbitzua betetzerakoan alta, bajak edo ordezkapenak dauden aldiro, dokumentua eguneratuta berehala aurkeztuko du.

Asimismo, cada vez que se den modificaciones por altas, bajas o sustituciones durante la ejecución del servicio, presentará el documento actualizado de manera inmediata.

12. Lan guztiak gainbegiratu eta horien inguruko informazioa jasotzeko eskubidea gordetzen du Anoetako Udalak. Esleipendunak Kultura Zerbitzuarekin (eta kirol ikastaroen kasuan, kiroldegiko harrera zerbitzuaz arduratzen den enpresarekin ere) elkarlanean jardungo du, ikastaro eta tailerren zerbitzua behar bezala burutu dadin.

12. El Ayuntamiento de Anoeta se reserva el derecho de supervisión e información sobre todos los trabajos. La empresa adjudicataria colaborará con el Servicio de Cultura (y en el caso de los cursos deportivos con la empresa que gestiona la recepción del polideportivo), para la correcta ejecución del servicio.

Koordinazio honen maiztasuna eta modua adosteko, esleipenduna eta Kultura departamentua elkartuko dira ikasturte hasieran.

La empresa adjudicataria se reunirá con el departamento de Cultura del Ayuntamiento a principios de curso para decidir cómo se van a coordinar, frecuencia de las reuniones, etc.

Ildo honetatik, esleipendunak zerbitzuaren koordinatzaile arduradun bat izendatuko du, zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipen lanak bere gain hartuko dituena.

Para ello, la empresa adjudicataria designará una persona responsable para gestionar el seguimiento del servicio, que será la persona coordinadora.

Arduradun hau edozein unetan aurkitzeko moduan egongo da telefono mugikorraren bidez (esleipendunak emango dio bere langileari telefonoa), edozein egoera edo gorabehera konpontzeko.

Esta persona deberá estar localizable en cualquier momento mediante teléfono móvil para resolver cualquier situación o incidencia. La empresa adjudicataria será la encargada de proporcionar dicho teléfono móvil.

Pertsona honen funtzioak hauek izango dira:

Las funciones de esta persona serán las siguientes:

-Bilerak egitea Udaleko Kultura departamentuarekin (eta kirol ikastaroen kasuan kiroldegiko harrerakoekin ere) zerbitzuaren martxa ona bermatzeko.

-Realizar reuniones con el departamento de Cultura del Ayuntamiento (y en el caso de los cursos deportivos con el personal de recepción del polideportivo también) para la correcta marcha del servicio.

-Edozein intzidentziaren berri ematea Kultura departamentuari (eta kirol jardueren kasuan baita kiroldegiko harrerakoei ere).

-Dar cuenta de cualquier incidencia al departamento de Cultura del Ayuntamiento (y en el caso de los cursos deportivos también al personal de recepción del polideportivo).

-Zerbitzua emango duten langileen asistentziak eta jarduera egokia kontrolatzea.

-Controlar la asistencia y buen hacer del profesorado que impartirá el servicio.

-Memoriak, txostenak eta proposamenak aurkeztea Kultura departamentuari dagokion garaian.

-Presentar memorias, informes y propuestas al departamento de Cultura en el plazo correspondiente.

-Erabiltzaileen kexak, erreklamazioak edota proposamenak jaso eta kudeatzea, erantzun egoki bat emateko, betiere Kultura departamentuarekin elkarlanean.

-Gestionar las quejas, reclamaciones y/o propuestas de las personas usuarias, para darles una respuesta adecuada, siempre en coordinación con el Departamento de Cultura.

13. Jardueraren baitan ikasleek jasan lezaketen edozein motatako istripu edo gertakari kaltegarriei aurre egin ahal izateko, esleipendunak urtero, zerbitzua bere hedadura osoan estaliko duen asegurua izango du, Baldintza Administratiboetan ezarritakoari jarraiki. Polizaren kopia bat udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko da jarduera hasi bezperarako.

13. Con el fin de hacer frente a cualquier tipo de accidente o suceso dañino que el alumnado pueda sufrir en el desarrollo de la actividad, la empresa adjudicataria dispondrá anualmente de un seguro que cubra, en toda su extensión, el servicio prestado, de acuerdo con lo establecido en las Condiciones Administrativas. Una copia de la póliza deberá presentarse en el registro general del ayuntamiento, como muy tarde la víspera del inicio de la actividad.

Laneko istripuei, laneko segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia esleipendunaren ardura izango da.
Ildo horretatik, esleipendunak beharrezko segurtasun neurri guztiak emango dizkie bere langileei, eta laneko segurtasunaren eta osasun arloan aplikatu beharreko xedapen guztiak beteko ditu.

Todo lo relativo a accidentes de trabajo, medidas de seguridad laboral y seguridad social será responsabilidad de la empresa adjudicataria.
En este sentido, la empresa adjudicataria dotará a su personal de todas las medidas de seguridad necesarias, obligándose a cumplir cuantas disposiciones sean aplicables en materia de seguridad y salud en el trabajo.

Anoetako Udalak ez du inolako lan harremanik izango jardueretarako kontratatutako langileekin.

El Ayuntamiento de Anoeta no tendrá relación laboral alguna con el personal contratado para el desarrollo de la actividad.

ANOETAKO UDALA

14. Adingabeentzat antolatzen diren ikastaroetako irakasleen kasuan, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute

14. En el caso del profesorado de cursos para menores, en cumplimiento de lo establecido en la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia, deberán presentar certificado acreditativo de no estar inscritos en el Registro Central de delincuentes sexuales.

15. Kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazioa Anoetako Udalarena da. Zerbitzuaren garapenean erabilitako datuak, materialak etab. ezingo dira erabili udalaren baimenik gabe.

15. La documentación que se genere durante la ejecución del presente contrato será propiedad del Ayuntamiento de Anoeta. Los datos, materiales, etc. Utilizados durante el desarrollo del servicio no podrán ser utilizados sin permiso del Ayuntamiento.

Esleipendunak zerbitzuaren inguruko edozein komunikabidean parte hartzeko, Anoetako Udalak baimena eman beharko du aurretik, eta edukiak adostu.

La participación de la empresa adjudicataria en cualquier medio de comunicación en relación con el servicio, deberá ser previamente autorizada por el Ayuntamiento de Anoeta, así como el contenido de la intervención.

5.- ANOETAKO UDALAREN BETEBEHARRAK

5. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ANOETA

1. Anoetako Udala ikastaroen kuotak kobratzeaz arduratuko da.

1. El Ayuntamiento de Anoeta se encargará del cobro de la cuota de los cursos.

2. Anoetako Udala Ikastaroei buruzko kartelak (enpresa adjudikatarioak egingo dituenak) zabaltzeaz arduratuko da.

2. El Ayuntamiento de Anoeta se encargará de la difusión de los carteles de los cursos y talleres (los carteles los hará la empresa adjudicataria).

3. Anoetako Udalak ikastaroetako ikasturteko egutegia zehaztuko du.

3. El Ayuntamiento de Anoeta definirá el calendario de cursos para el curso académico.

4. Anoetako Udalak ikastaroak eta tailerrak aurrera eramateko behar diren udal instalazioak enpresa adjudikatarioaren esku utziko ditu.

4. El Ayuntamiento de Anoeta pondrá a disposición de la empresa adjudicataria las instalaciones municipales necesarias para el desarrollo de los cursos y talleres.

5. Anoetako Udalak enpresari ordainduko dio emandako zerbitzuengatik.

5. El Ayuntamiento de Anoeta pagará a la empresa por los servicios prestados.

6. Anoetako Udalak, ahal duen heinean, enpresa adjudikatzaileari lagunduko dio, zerbitzuaren martxa ona ziurtatzeko.

6. El Ayuntamiento de Anoeta ayudará a la empresa adjudicataria, en la medida de lo posible, para garantizar un correcto funcionamiento del servicio.

6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

6.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Ikastaro guztiak euskaraz eskainiko dira. Salbuespenik egonez gero, Kultura departamentuak jakinaraziko lioke esleipendunari.

Todos los cursos se ofrecerán en euskera. Si hubiera alguna excepción, el departamento de Cultura se lo comunicaría a la empresa adjudicataria. el servicio se ofrecerá en euskera.

ANOETAKO UDALA

1.- **Hizkuntza-gaitasuna**.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. Artikuluan ezarritakoa betez.

Hortaz, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute langile guztiek.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Horretarako, gaitasuna dutela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:
-Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea, edo
-Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

1.- Capacidad lingüística.

En la medida en que tengan relación con la Administración y con terceros, el personal de la empresa contratada deberá garantizar unas condiciones de competencia lingüística equivalentes a las que deba cumplir la propia Administración, cumpliendo lo establecido en el artículo 18 del decreto 86/1997 del 15 de abril, que regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la CAV.

En atención a la naturaleza de los servicios a prestar, el personal deberá acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Común Europeo.

Antes de la adjudicación del contrato la empresa deberá acreditar que las personas que van a prestar el servicio tienen la competencia lingüística requerida. Para ello, deberán presentar documento acreditativo de que las personas encargadas de la prestación del servicio tienen la capacidad lingüística requerida.

Asimismo, en el caso de que con posterioridad a la contratación de la empresa se incorporasen nuevas personas que prestaran el servicio, éstas deberán acreditar el perfil lingüístico requerido.

La acreditación de la competencia lingúística podrá hacerse de dos maneras:
-Presentando los documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen con la competencia lingüística requerida, o
-Tomando parte en las pruebas que con ese objeto realice la administración (la acreditación que se obtenga en dichas pruebas carecerá de valor en cualquier otra instancia).

2.- Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira, edota piktogramak erabiliz.

2.- Paisaje lingüístico

Los rótulos, notas, señales y demás comunicaciones de carácter general se realizarán en euskera y/o mediante pictogramas.

3.- Erabilera herritarrekin

Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana

3.- Uso con la ciudadanía

Siguiendo los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, la comunicación con la ciudadanía (teléfono, contestador, presencial, altavoz, reuniones…) se realizará en euskera.

(telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak etab.) euskaraz egingo dira.

Beraz, zerbitzuaren hizkuntza nagusia euskara izango da: erabiltzaileekiko harremana euskaraz izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da. Edozein modutan, bai ahoz eta bai idatziz, beti errespetatuko dira herritarren hizkuntz eskubideak.

Ikastaroen publizitate kartelak eta eskuorriak euskaraz izango dira (ele biz ere bai, udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian jartzeko, besteak beste).

Ele biz egiten diren idatzietan beti euskara nabarmenduko da.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

4.- Erabilera administrazioarekin

Esleipendunak ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz egingo ditu Anoetako Udalarekin.

7.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA

Kultura eta Gazteria Sailak behar bezalako jarraipena egin ahal izateko, zerbitzuaren erabiltzaileentzat proposatutako helburuak bete diren neurtzeko, langileekin eta behar izanez gero esleipendunarekin bilerak egin ahal izango ditu. Era berean, Kultura Sailak ondorengo eskumenak izango ditu:

Asimismo, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo (impresos, avisos, avisos, horarios, facturas, etc.) se realizarán en euskera.

Por lo tanto, la lengua principal del servicio será el euskera: la relación con las personas usuarias será principalmente en euskera, y se promoverá que así sea. En cualquier caso, siempre se respetarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía, tanto a nivel oral como escrito.

Los carteles y hojas informativas para publicitar los cursos se harán en euskera, (también en bilingüe, para poner en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y la página web, entre otros).

En los escritos en bilingüe siempre se destacará el euskera.

La empresa contratada deberá garantizar la corrección y adecuación de los textos en euskera utilizados en la prestación del servicio. Para certificarlo, los textos de gran difusión y/o repetitivos serán trasladados al Servicio de Euskera del Ayuntamiento para comprobar su corrección y si el nivel fuera inadecuado se solicitará a la empresa su corrección a su costa.

4.- Uso con la Administración

La enpresa adjudicataria desarrollará en euskera todo tipo de comunicaciones, tanto orales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas…) que se realicen con el Ayuntamiento de Anoeta.

7.- CONTROL Y SEGUIMIENTO DEL SERVICIO

Para que el Departamento de Cultura pueda realizar un adecuado seguimiento de los objetivos propuestos para las personas usuarias del servicio, para medir el cumplimiento, podrá mantener reuniones con el personal y, en su caso, con la empresa adjudicataria. Asimismo, el Departamento de Cultura tiene atribuidas las siguientes competencias:

ANOETAKO UDALA

-Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu.	• Dirigir, supervisar y controlar la gestión del servicio: evaluar su calidad.
-Ikastaro eta tailerren funtzionamendua, aldaketak, lokalen irekierak eta itxierak arautu eta bestelakoak.	• Regular el funcionamiento de cursos y talleres culturales, modificaciones, aperturas y cierres de locales y otros.
-Zerbitzuaren adjudikaziodunek proposatutako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen intereseko delako balizko aldaketak proposatu.	• Estudiar y supervisar la programación propuesta por la empresa adjudicataria del servicio y proponer posibles modificaciones de carácter técnico, circunstancial o de interés público.
Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Kultura arloko arduradunak, adjudikaziodunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko.	La persona responsable del área de Cultura estará facultada para supervisar las acciones que tengan relación directa con estos servicios, a fin de comprobar el cumplimiento de las obligaciones de la empresa adjudicataria.
Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak (ordutegiak,…) betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.	Asimismo, podrá comprobar el cumplimiento de las condiciones técnicas del contrato y demás circunstancias del servicio (horarios, etc.)

Anoetan, 2022ko uztailaren 29an
KULTUR DINAMIZATZAILEA

MARIA TERESA SOTO BERMEJO

Firmado digitalmente por MARIA TERESA SOTO BERMEJO
Fecha: 2022.07.29 12:53:18 +02'00'